



## EUSKARA FAMILIAN / FAMILIA EUSKARAN

Eibarko Udalak, beste hainbat gizarte eragilerekin batera (ikastetxeak, euskaltegiak, ... eta kitto!, Berritzegune, Astixa, multikirolak...), *Euskara Familian / Familia Euskaran* kanpaina jarri du martxan transmisioren garrantziaz sentsibilizatzeko eta gaiaren inguruan ahalik eta informazio gehien emateko. Kanpaina honen bidez azpimarratu nahi da zein garrantzitsua den euskara hizkuntza moduan familian kontuan hartzea eta zein garrantzitsua den familia bera euskararen erabilera eta transmisioa bultzatzeko.

Kanpaina honen barruan honako egitasmo hauek bideratuko dira euskararen erabilera eta transmisioa bultzatzeko:

- Irrati tarteak Euskadi Irratian eta Radio Euskadin, gurasoak hizkuntzaren erabileran duten eredu paperaz jabetzeko, eta bikote hizkuntza euskara izatearen garrantziaz jabetzeko
- Gutuna multikiroletako eta Afariketaneke umeen gurasoei, bi egitasmo horien bitartez euren seme-alabek euskara kirolean eta aisialdian praktikatzeko duten aukeraz jabetzeko eta umeak horretara animatzeko, hala lagunartean ere euskara erabiltzeko ohitura hartzen joan daitezen.
- Gurasoentzako euskalduntze kanpaina, euskara ikastera anima daitezen eta hala euren seme-alaben euskalduntzea erraztu dezaten
- “Begiraleek asko egin dezakete” ikastaroa aisialdiko begiraleentzat, umeek aisialdian euskara gehiago erabiltzera bultzatzeko erramintak eta estrategiak izan ditzaten, eta euren egitekoaren garrantziaz jabetu daitezen.
- “ Ume Eleanitzen Gurasoentzako eskuliburua”ren zabalkundea, 0-6 urte bitarteko gurasoei eleaniztasuna nola kudeatu jakinarazteko.
- Gurasoentzako azoka Euskararen Egunean, hizkuntzaren erabileran duten eredu paperaz jabetu daitezen eta euren seme-alabentzako herrian dagoen euskarazko eskaintzaren berri izan dezaten
- Ikastetxeetako sentsibilizazio saioak Berritzegunereren eskutik, irakasleek ere umeen euskalduntzea errazteko informazioa, motibazioa eta estrategiak izan ditzaten.
- “ Ume Eleanitzen Gurasoentzako eskuliburua” tailerra euskaltegiako gurasoentzat, 0-12 urte bitarteko gurasoei eleaniztasuna nola kudeatu jakinarazteko.

Administrazioa eta gizarte eragileek jakin badakite elebitasunak edo eleaniztasunak zalantza eta kezka ugari sortarazten dituela gurasoen artean ; izan ere, gurasoek ez dute oso garbi izaten umeak gai izango diren txikitatik 2 hizkuntza batera behar bezala ikasteko, bata bestearekin nahastuko duten...

Horren aurrean oso garrantzitsua da jakitea azken 40 urteotan eginiko ikerketen emaitzek argi eta garbi utzi dutela txikitatik hizkuntza bat baino gehiago ikastea ez dela kaltegarria, onuragarria baizik, eta, gainera, praktika ezin hobea dela zerebroaren garapenerako.

Gurasoak oso garrantzitsuak dira umeen hizkuntza prozesuan, ezinbestekoak, eragin zuzena dutelako seme-alaben hizkuntzaren ezagutza eta erabilera ohituretan, nahiz eta euskara ez ezagutu.

Hizkuntza ohiturak, umea jaiotzen denetik hasten dira finkatzen, eta Eibarren dugun egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta (gaztelania baita nagusi) oso garrantzitsua da euskarari aparteko garrantzia ematea, gaztelaniaren ezagutza eta erabilera berez daudelako bermatuta; hor ikusten da zein indar handia duen ERABILERAK hizkuntza baten ikaskuntzan.

Horrexegatik, gure umeek euskara gaztelania bezain edarto menpera dezaten nahi baldin badugu (ez hobeto, baizik eta biak ondo), ezinbestekoa da euskara erabiltzeko ahalik eta aukera gehien eskaintzea eta etengabe motibatzea:

- EUSKARAZ DAKITEN GURASOEK hizkuntzaren ezagutza transmitituz eta erabilera indartuz, familia eta etxeko giroa giltzarri direlako umearentzat, eta afektibitatea eta efektibitatea elkarri lotuta doazenez motibazioa ere ziurtatuta geratzen delako.
- EZ DAKITENEK, hau da, hizkuntzaren ezagutzaren transmisio naturala ziurtatu ezin dutenek, hizkuntzarekiko jarrera positiboak azalduz, euskara erabiltzeko ahalik eta aukera gehien eskainiz, eta etengabe motibatuz. Izan ere, familiaren jarrera eta portaerek izugarri baldintza dezakete seme-alaben hizkuntz ikaskuntza prozesua. Hizkuntza bat baino gehiago ikasteko aukera izatea ez da faena bat, baizik eta hitzak berak dioen bezala AUKERA da, aukera ezin hobea, ZORTEA , BERMEA, ABERASTASUNA, JAKINDURIA...

EZ DIRA ATEAK ITXI BEHAR, IREKI EGIN BEHAR DIRA, AHALIK ETA GEHIEN GAINERA. Eman diezaiegun gure ondorengoei gure esku dagoen guztia; eman diezaiegun beste belaunaldi batzuetan izan ez dugun zorioneko aukera preziatu horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko behar-beharrezkoa duten animo eta mimoa.